



Arteagako gaztelua (Gaiteguiiz - Arteaga)

Gaztelua Gaitegiz Arteagako Ozollomendi auzoko leku pribilegiatuan dago, Gernikako itsasadarra menperatzen duela. Napoleon III.a eta Eugenia de Montijo Frantziako enperadore-enperatrizek dorrea berreskuratzeari ekin zioten, Bizkaiko Batzar Nagusiei Eugenio Bonaparte beraien semea *bizkaitar*, 1856an izendatzeagatik eskerrak emateko. Izan ere, haren ama Arteagako orubearen jabea zen.

Proiektua 1856an Couvrechek Leku Inperialetako arkitekto frantziarrari agindu zioten, gaztelua osorik konpontzeko edo berriz eraikitzeko. Arkitektoa bigarren aukeraren alde azaldu zen, dorre berria eraikitzearen alde, zaharra ez baitzitzaien inperio-egoitzaren beharriari egokitzen. Hura berriz eraikitzeko aukera horrek Eugène Viollet-le-Duc-en irizpide errestituzionistaren eragin handia jasan zuen, hasierako irudia berreskuratzeko irizpidearena alegia.

Horrela, Arteagako leku hartan eraiki zen jauregi neoeratarokoa, Frantziako arkitektura gotikoan inspiraturiko omenaldiaren dorre moduko dorretzarra, erromantizismoak estilo gotikoaz egin zuen berreskurapenaren eragin handia jasan zuena. Erlazio-zirkuluari dagokionez, adierazi ahal da ezen *donjon de Beaucaire* ren hitzez hitzeko transkripzioa dela, frantses Midikoa. Antzinako dorretik, partzialki, kanpoaldeko hormak bakarrik aprobetxatu ziren. Hormotan portada deigarria ireki zen.

Obra hasi eta hiru hilabetera Couvrechek hil zen, Anceletek ordezkatu zuena, Ancelet Frantziako errege-etxeko arkitektoa zen, halaber. Aldarazpen txikiak sartu zituen.

Mungiako Billelako dorrea (1852), Getxoko Areetako Santa Ana basiliza eta gaztelu hau dira Bizkaiko estilo neoklasikoaren lehenengo adibideak. Estilo hori erlijio-arkitekturaren askotan erabili zen, eta arkitektura zibilean gutxitan. Arteagako gaztelu hau Europako arkitektura garaikideko salbuespenik nabarmenenetakoa da.

Neogotizismoa hormak arintzen dituzten arku zorrotzetan, fantasiako animalia irudiak dituzten gargoletan, bao bikietan, arku biki itsuetan eta militarren arkitektura gotikoko ohiko almenetan merlonetan eta matakanetan ageri da.


Arteagako dorreak sotoa eta lau solairu zituen. Sotoan upelategiak zeuden, behe solairuan sukaldea eta zerbitzuko gainerako gelak, noblean hartzeko piezak, bigarrenean logela nagusiak eta kaperak eta hirugarrenean morroien eta neskameen logelak. Solairuak dorretzar angeluarreko eskailera kiribilak loturik zeuden.

Barrualdeetan panelak, kasetoidun eta teladun sabaik eta hormak eta tximinia dotoreak nabarmendu behar dira, gazteluaren estilo neogotiko berari dagozkionak.

Lorategiak jartzeko proiektua Newman Frantziako errege-etxeko lorazainak egin zuen. Juan E. Delmasek deskribaturiko proiektu horretatik (*lorategiak, belardiak eta parkeak, Arteagako dorrea goratu eta edertzen zutenak*), etxaldea mugatzen duten zuhaitzak bakarrik geratzen dira.

Arteagako gaztelua ostalaritza-erabilerarako berreskuratu berri da.

Testua: Gorka Pérez de la Peña.



Arteagako gaztelua

Gaiteguiiz - Arteaga. (Gaztelubide kalea. (Zelaieta auzoa).

Nola heldu:

Gernikatik Lekeitiorako errepidetik, Arteagako hiri-aldearen barruan eta 500 bat metrora. Seinalezaturik dago.

Bisiten ordutegia:

Egun ostalaritza-erabilerarako egokiturik dago.

Inguruko beste leku interesgarri batzuk:

(Gaiteguiiz - Arteaga)

- Andre Mariaren parroki eliza.
- San Bartolome basiliza.
- San Antolin basiliza.
- Andrabideko harrobiak.
- Ozollo Errota.